MENDAROKO
UDALA

AGIRI TEKNIKOA, “KILIMON ETORBIDEA ETA OSPITALEA ARTEKO IGOGAILU PUBLIKOAK” EXEKUZIO PROIEKTUA IDAZTEA ETA OBRA ZUZENDARITZA ADJUDIKATZEKO

PLIEGO TÉCNICO PARA LA ADJUDICACIÓN DE LA REDACCIÓN Y DIRECCIÓN FACULTATIVA DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN DE “ASCENSORES PÚBLICOS ENTRE LA AVENIDA KILIMON Y EL HOSPITAL”

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da "KILIMON ETORBIDEA ETA OSPITALEA ARTEKO IGOGAILU PUBLIKOAK” Exekuzio Proiektua idaztea Mendaroko Udalarentzat., baita Zuzendaritza Fakultatiboaren lanak ere (obra zuzendaritza eta obra exekuzioko zuzendaritza), eta obren kalitate kontroleko programa gainbegiratu eta betetzea barne. Lan horiek jarraian xehatutakoak dira:

A FASEA: Proiektua idaztea, Agiri honetako 4. artikuluan zehaztutako dokumentuak izango dituena

Edukiari dagokionez, proiektua izango da sektore publikoko kontratuen arloan indarrean dagoen araudiak dioenaren araberakoa, alabaina ez da eragotziko, dagokion Elkargo Ofizialak, teknikariaren titulazioari edo esleipen-talde teknikoari gai honen inguruko araudian proiektu mota hauei ezar dakiokeen dokumentu eta determinazioak aurkeztea.

B FASEA: Obra zuzendaritza: barnean izango ditu, obra zuzendaritza, kalitate kontrolaren programaren jarraipena, eraikuntza eta eraispen lanetako hondakinen kudeaketa planaren jarraipena; baita obraren egoeraren gaineko txostena ere, berme-epearen amaitzearen aurrekoa.

Lan horien barruan egongo da lanak zuzen egiteko beharrezkoa izan litekeen koordinazio mota oro.

A eta B faseei dagozkien proposamenak bereizita egingo dira.

Nahiz eta KILIMON ETORBIDEA ETA OSPITALEA ARTEKO IGOGAILU PUBLIKOAK proiektua egitasmo bakarra izan, lanak bi azpifasetan egitea aurreikusten da: lehena, B.1, Kilimon Etorbidea eta Andoneikua Etorbidea arteko igogailuari dagokiona izango da; bigarrena (B.2), aldiz, Andoneikua Etorbidea eta ospitalearen artekoa. Hori dela eta, proiektua egituratuta egongo da obrak faseka lizitatu ahal izateko moduan.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato es la redacción del Proyecto de Ejecución de “ASCENSORES PÚBLICOS ENTRE LA AVENIDA KILIMON Y EL HOSPITAL” para el Ayuntamiento de Mendaro, así como las labores de Dirección Facultativa (dirección de obra y dirección de ejecución de obra), y la supervisión y cumplimiento del programa de control de calidad de las obras. Los trabajos se desglosan a continuación:

FASE A: Redacción del proyecto, que incluirá los documentos indicados en el artículo 4 del presente Pliego.

El proyecto de ejecución deberá ajustarse en su contenido a lo que se establece en la normativa vigente en materia de Contratos del Sector Público, sin perjuicio de contener todos aquellos documentos y determinaciones establecidos para este tipo de proyectos en la normativa reguladora de esta materia del Colegio Oficial correspondiente a la titulación del técnico o técnicos del equipo adjudicatario.

FASE B: Dirección de obra, que incluirá la Dirección de Obra, el seguimiento del Programa de Control de Calidad, el seguimiento de la Gestión de Residuos de Construcción y Demolición, así como el informe sobre el estado de las obras previo al cumplimiento del plazo de garantía.

Estos trabajos incluyen cualquier otra coordinación que, para su correcta realización, pudiera ser necesaria.

Las proposiciones correspondientes las fases A y B se formularán por separado.

Aunque el proyecto de los ASCENSORES PÚBLICOS ENTRE LA AVENIDA KILIMON Y EL HOSPITAL sea un único proyecto, las obras se prevén realizarlas en dos subfases: la primera de ellas (B.1) corresponderá al elevador entre la Avenida Kilimon y la Avenida Andoneikua; la segunda (B.2), al elevador entre la Avenida Andoneikua y el hospital. Por ello, el proyecto estará estructurado de manera que posibilite la licitación de las obras por fases.

MENDAROKO
UDALA

2. BEHARREN PROGRAMA

Mendaroko Udalak aurreikusi du Kilimon Etorbidea eta Ospitalea bi igogailuen bidez lotzea, irisgarritasun arazoei irtenbidea emateko helburuarekin.

2021eko otsailean Mendaroko hirigunetik ospitalera igotzeko igogailuen aurreproiektua idatzi zen, dirulaguntzak eskatzeko Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari. Kontratu honen helburua den proiektua, aurreproiektu horretan oinarrituko da, UR arquitectura S.L.P.k idatzia.

Proiektuak jasoko ditu lursaila egokitzea, egiturak jasotzea, beharrezko elementu mekanikoak jartzea, baita inguruneko urbanizazio lanak ere. Igogailuek honako maila hauetarako sarbidea bideratu beharko dute: Kilimon etorbidea, Andoneikua etorbidea, kirolgunea eta Ospitalea.

Igogailuak paisaian integratuko dira eta bereziki itxura estetikoa zainduko da.

Instalazioaren diseinu, sartzeko pasarelak, sarbideak, igogailuen kabinak eta inguratzailearen materialei dagokienez, kontuan hartuko da kanpoaldetik ikusgarritasunik gabeko punturik ez sortzea, erabiltzailearengan segurtasun eza eta beldurra sortzea eragozteko.
Proiektuak inguratzailearen hermetikotasuna bermatu beharko du, eta era berean esparru hori behar bezala aireztatzea. Hori horrela, instalazioaren diseinuan alderdi horiek hartuko dira kontuan.

Gainera, proiektuak behealdeko berdegunea errespetatu beharko du, etorkizunean ekipamendu publiko bat garatzeko aukera hipotekatu gabe. Era berean, goiko partzelan dagoen kirol-eremua ahalik eta gutxien inbaditzeko ahalegina egingo da.

Agiri honen 1. artikuluan zehaztu den bezala, obra bi azpifasetan egingo da, jasogailu bakoitzeko bat; beraz, lanak faseka errazago kontratatzeko moduan egituratu beharko da proiektua.

3.- AURKEZTEKO EPEA

A FASEA: Proiektua idaztea:
Exekuzio-proiektua idazteko epea HAMAR (10) astekoa da.

Exekuzio epe osoa hasiko da kontatzen kontratuaren adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik, eta eten egingo da horri buruz udalak definitu behar duen bakoitzean, eta horretarako dagozkion aktak egingo ditu edo eteteko akordioak eta berriro hasteko akordioak hartuko ditu.
Epe hori murriztu edo hobetu egin ahal izango da, enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

2. PROGRAMA DE NECESIDADES

El Ayuntamiento de Mendaro prevé unir la Avenida Kilimon con el Hospital mediante la construcción de dos elevadores urbanos, con la finalidad de resolver los problemas de accesibilidad.

Con fecha de febrero de 2021 se redactó un anteproyecto de ascensores para subir al hospital desde el centro urbano de Mendaro, documento necesario para solicitar subvenciones al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco. El proyecto objeto del presente contrato se basará en el mencionado anteproyecto, redactado por UR arquitectura S.L.P.

El proyecto contemplará el acondicionamiento de terreno, el levantamiento de las estructuras, la colocación de los elementos mecánicos precisos, así como las labores de urbanización del entorno. Los ascensores deberán resolver el acceso a los siguientes niveles: Avenida Kilimon, Avenida Andoneikua, zona deportiva y el Hospital.

Los ascensores quedarán integrados en el paisaje, cuidando especialmente su aspecto estético.

El diseño de la instalación, pasarelas de acceso, embarques, cabinas de los ascensores y los materiales de la envolvente, tendrá en cuenta que no se generen puntos sin visibilidad desde el exterior que puedan producir inseguridad y miedo en la persona usuaria.

El proyecto deberá garantizar la estanqueidad de la envolvente y a su vez la necesaria ventilación del recinto, por lo que se deberán tener en cuenta estos aspectos en el diseño de la instalación.

Además, el proyecto deberá respetar la zona verde de la parte inferior sin hipotecar la posibilidad de desarrollar en un futuro un equipamiento público en la parcela. Asimismo, se procurará invadir lo menos posible la zona deportiva existente en la parcela superior.

Tal y como se ha especificado en el artículo 1 de este Pliego, la obra se ejecutará en dos subfases, una por cada elevador, de modo que el proyecto deberá estructurarse de forma que facilite la contratación de los trabajos por fases.

3.- PLAZO DE ENTREGA

FASE A: Redacción del proyecto:
El plazo de entrega para la redacción del proyecto de ejecución es de DIEZ (10) semanas.
El plazo total de ejecución comenzará a contar desde el día siguiente a la formalización del contrato, interrumpiéndose cada vez que sea necesaria definición municipal al respecto, para lo cual se levantarán las correspondientes actas o se adoptarán los respectivos acuerdos de suspensión y reinicio.
Este plazo podrá reducirse o mejorarse según la oferta presentada por la empresa adjudicataria.

MENDAROKO
UDALA

B FASEA: Obra zuzendaritza:
Fase honetan laguntza teknikoari dagozkion lanak burutuko dira eta exekuzio-proiektuko obrak gauzatzeko ezarritako denboran burutu beharko da. Aipaturiko proiektuak obrari dagozkion azpifase bakoitzaren epea ezarriko du.

4.- PROIEKTUAREN DOKUMENTUAK

Proiektuak honako dokumentu hauek jasoko ditu:

- Memoria eta dagozkion eranskinak, Mendaroko Irisgarritasun Planaren dagokion fitxaren aldaketa barne
- Planoak
- Baldintza berezi teknikoen agiria
- Aurrekontua eta neurketak
- Lanen garapen programa edo izaera adierazgarriko obra plana
- Segurtasun eta osasun azterlana
- Kalitate Kontrolaren programa
- Hondakinen kudeaketaren azterlana
- Beharrezkoak diren instalazio proiektu espezifikoak, dagozkien ikus-onetsiekin (Proiektu elektrikoa, eta abar)
- Jasotze topografiko osagarria
- Azterketa geoteknikoa
- Esku-hartzearen ingurumen azterketa edo justifikazioa, baldin badagokio
- Lege edo araudi izaerako araudietan aurreikusitako dokumentu oro

Proiektu teknikoak eta gainerako agiri osagarriek nahikoa dokumentazioa eduki behar dute obra eta haren prozesua bi azpifasetan modu argian eta zehatzean irudikatzeko, aplikatzeko gutxieneko irizpideei jarraiki, Administrazio Publikoetarako indarrean dagoen kontratazio legeriaren arabera.

Proiektuaren elkargoaren ikus-onespena da nahitaezkoa, eta lizitazio prezioan sartuta egongo da.

5.- UDALARI AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Egikaritze-proiektuaren ale bat entregatuko da paperean, eta dokumentazioaren ale bat formatu digitalean, honako hauek jasoz:

- Planoak, DWG formatuan
- Memoria, eranskinak, baldintza teknikoen agiria, segurtasunaren eta osasunaren azterlana, kalitate kontrolaren programa eta hondakinen kudeaketari buruzko azterlana, Word formatuan
- Aurrekontua BC3 formatuan

Dokumentazio idatzia DIN A4 neurriko orrietan aurkeztuko da, eta kopiak irakurtzeko modukoak izatea zainduko da. Dokumentu bakoitzak bere orriak hurrenez hurren zenbakituko ditu. Azken orrietako bakoitzean, data azalduko da (eguna, hilabetea eta urtea). Dokumentu, memoria, Plano, Baldintza Tekniko Berezien Agiri eta halako dokumentu bakoitza koadernatuta egongo da.

FASE B: Dirección de obra:
Los trabajos de la asistencia Técnica referentes a esta fase se ajustarán en el tiempo a la duración de la ejecución material de las obras contempladas en el proyecto de ejecución. Dicho proyecto establecerá el plazo de cada una de las subfases de obra.

4.- DOCUMENTOS DEL PROYECTO

El proyecto contendrá los siguientes documentos:

- Memoria y sus correspondientes anexos, en los que se deberá incluir la modificación pertinente de la ficha del Plan de Accesibilidad de Mendaro.
- Planos
- Pliego de prescripciones técnicas particulares
- Presupuesto y mediciones
- Programa de desarrollo de los trabajos o plan de obra de carácter indicativo
- Estudio de seguridad y salud
- Programa de control de calidad
- Estudio de Gestión de Residuos
- Proyectos específicos de instalaciones que resulten necesarios, con sus correspondientes visados (Proyecto eléctrico, etc.)
- Levantamiento topográfico complementario
- Estudio geotécnico
- Análisis o justificación ambiental de la intervención, en su caso
- Cuanta documentación venga prevista en normas de carácter legal o reglamentario

El Proyecto Técnico y resto de documentos complementarios deberán contener la documentación suficiente para plasmar la obra y su proceso de ejecución en dos subfases de forma clara y concisa, siguiendo los criterios mínimos de aplicación según la legislación de contratación vigente para las Administraciones Públicas.

El visado colegial del Proyecto es obligatorio y se entenderá incluido también en el precio de licitación.

5.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR AL AYUNTAMIENTO

Se entregará un ejemplar en papel del proyecto de Ejecución, además de un ejemplar de la documentación en formato digital, conteniendo:

- Planos en formato DWG
- Memoria, anejos, pliego de condiciones técnicas, estudio de seguridad y salud, programa de control de calidad y estudio de gestión de residuos, en formato Word
- Presupuesto en formato BC3

La documentación escrita se presentará en hojas de tamaño DIN A4, cuidando que las copias resulten perfectamente legibles. Cada documento llevará sus hojas numeradas correlativamente. En cada una de sus hojas finales figurará la fecha (día, mes y año). Cada documento, memoria, Planos, Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares, etc. irá encuadernado independientemente.

Planoak tamaina normalizatuetan aurkeztuko dira, manejatzen errazak, eta solte joango dira, DIN A4ean tolestuak.

Los planos se presentarán en tamaños normalizados que resulten manejables e irán sueltos, doblados a DIN A4.

6.- PROIEKTUA IDAZTEKO ETA OBRA ZUZENDARITZARAKO AURREKONTU ZENBATETSIA

KILIMON ETORBIDEA ETA OSPITALEA ARTEKO IGOGAILU PUBLIKOEN PROIEKTUA idazteko eta Obra zuzendaritzako kontratuaren aurrekontu zenbatetsia (BEZ gabe) 90.000 eurokoa da (LAUROGEITA HAMAR MILA EURO).

Kontratuaren prezioa, proiektua idaztekoa, BERROGEITA HAMAR MILA EURO (50.000,00 €) da, BEZ sartu gabe, eta kopuru horri buruz lizitatzaileek beheranzko eskaintzak egingo dituzte.

Kontratuaren prezioa Obraren zuzendaritza fakultatibo osorako, berriz, izango da BERROGEI MILA EURO (40.000 €), BEZ sartu gabe, eta kopuru hori beherantz hobetu dezakete lizitatzaileek eskaintzetan. Obra fase bakoitzaren zuzendaritza fakultatiboaren prezioa, fase horietako bakoitzak proiektuan duen aurrekontuarekiko proportzionala izango da.

6.- PRESUPUESTO ESTIMADO PARA LA REDACCIÓN DEL PROYECTO Y LA DIRECCIÓN FACULTATIVA

El valor estimado (IVA no incluido) para el contrato de redacción y Dirección Facultativa del PROYECTO DE ASCENSORES PÚBLICOS ENTRE LA AVENIDA KILIMON Y EL HOSPITAL asciende a 90.000 € (NOVENTA MIL EUROS).

El precio del contrato de la Redacción del Proyecto asciende a la cantidad de CINCUENTA MIL EUROS (50.000,00 €), IVA excluido, cantidad sobre la que las empresas licitadoras realizarán ofertas a la baja.

El precio del contrato para la Dirección Facultativa completa de la obra, a su vez, será de CUARENTA MIL EUROS (40.000 €), IVA excluido, cantidad que podrá ser mejorada a la baja en sus ofertas por las empresas licitadoras. El precio de la Dirección Facultativa de cada una de las fases de la obra, será proporcional al presupuesto del proyecto de cada una de ellas.

7.- OBRAREN AURREKONTU ZENBATETSIA

KILIMON ETORBIDEA ETA OSPITALEA ARTEKO IGOGAILU PUBLIKOEN PROIEKTUrako aurreikusitako kontrata bidezko exekuzio-aurrekontua (BEZik gabe) 1.249.500,00 eurokoa da. (MILIOI BAT, BERREHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI MILA ETA BOSTEHUN EURO).

7.- PRESUPUESTO ESTIMADO PARA LA OBRA

El presupuesto de ejecución por contrata (sin IVA) estimado para el “PROYECTO DE ASCENSORES PÚBLICOS ENTRE LA AVENIDA KILIMON Y EL HOSPITAL” asciende a 1.249.500,00 €. (UN MILLÓN DOSCIENTOS CUARENTA Y NUEVE MIL QUINIENTOS EUROS).

8.- UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA

Mendaroko Udalak honako dokumentazio hau emango die lizitatzaileei:

- Jardun eremuaren plano topografikoa (2016ko urtarrilekoa, goialdeko partzelako kirolguneko obrak egin aurrekoa), DWG formatuan
- 2021 urteko aurreproiektua, Mendaroko hirigunetik ospitalera igotzeko igogailuena

8.- DOCUMENTACIÓN APORTADA POR EL AYUNTAMIENTO

El Ayuntamiento de Mendaro aportará a los licitadores la siguiente documentación:

- Plano topográfico del ámbito de actuación (de enero 2016, antes de ejecutar las obras de la zona deportiva de la parcela superior) en formato DWG
- Anteproyecto de febrero de 2021, correspondiente a los ascensores para subir al hospital desde el centro urbano de Mendaro

9.- PROIEKTUA EXEKUTATZEKO BEHAR DIREN BAIMENAK

Enpresa adjudikaziodunak egin behar ditu behar diren gestioak, bai enpresa hornitzaileen aurrean, bai administrazio eskudunen aurrean, proiektua exekutatzeko behar diren baimenak lortzeko; nolanahi ere, eskaera formalak udalak bete behar ditu.

9.- AUTORIZACIONES PRECISAS PARA LA EJECUCIÓN DEL PROYECTO

La empresa adjudicataria deberá realizar las gestiones precisas, tanto ante empresas suministradoras, como Administraciones competentes, para la obtención de las autorizaciones que sean precisas para la ejecución del Proyecto, sin perjuicio de que las solicitudes formales sean cumplimentadas por el Ayuntamiento.